



Arrese Beitia Olerkaria

EUSKELTZALIAK diraneri ez dauka-
gu esan biarrik Arrese-Beitia nor
zan, guztiak ondo ezautzen dabe.
Euskaldunen artian izan danik olerkari edo
poeta lirikorik onenetarikoa. 1841'ko maiet-
zaren 25'ian Otxandixon jaio zan eta ber-
tan il 1906'garren urteko urtarrillaren
16'an.

Olerkari liriko retorikoetarikoa gendun.
Bertso ederrak darixola pasau zan mundu
onetatik; bere ogibidia santugiña (escultor)
zan, orretan be artistia izango zan baña
bere biotza dudarik barik olerkari utsa zan.
Gaurko poesiak beste tankera batzuek ditu
baña ez uste orregaitik Errese-Beitia baz-
tatu danik, gaur be oindiok bere bertsoak
nor-naik kantatzen ditu, ez Iparragirre ba-
ten aña, bañan olerki kontuan Iparragirre
baño askoz geiago zan.

Bere olerkirik onenetarikoak: «Arbola
bata», «Ama euskerari azken agurrak», «Bizi
da ama euskera», «Libertadea», «Antxiñako
denporan» da abar, dira beste askoren ar-
tian; eundakak olerkiak ditu, ba, ez da
alperrik euskaldunen artean olerkirik geien
ein dituana. Ta gañera, gure artian ezautu
danik euskeltzalerik zintzoena, beria da
oindiok iñoiz entzutzen dan zortziko au:

«Euskaldun jaio nintzan,
euskalduna ari,
euskera utsik amak
eustan irakatsi;
euskera maite maite
zabiltz neugaz beti,
euskera il ezkeru
ez dok gura bizi».

Herrera, Valbuena, Caro, Quintana ta
Zorrilla'en olerkiak erderatik euskerara
itzuli zituana, eta esan leike euren itxurakoa
dala. Ezta beste mundukoa ola izatia, bere
poeta maitatuak arek izan ba-ziran.

Alta Onaindia ospetzuari eskerrak, bere
olerki guztiak batu ta liburu batian argi-
taratu zituana, bestela asko ta asko galtzeko
zorian ziran, ta oin beintzat betiko geldi-
tu jakuz.

Bada edo obeto esan da ba-zan, bere
ondoren, euskaldunon artian beste Arrese
bat be, Emeterio Arrese tolosarra, au be
onenen artian sartzeko modukoa, alkarren
senidiak ziran.

Gure olerkari au ez dakigu Eibar'en
bizi izan zan, baña bere bertso bat baño
geiagotan aitxatzen dau gure erri au ta
baliteke, santugiña zanez, Eibar'ko Kanpo-
santuan edo biarrian ibilitakoa izatia, ba
geienetan errietako Kanposantuetan izaten
eban bere biar lekua.

1886'garren urtian ein zan Eibar'en
trenbidia ta orduko denporetarako, trena,
oin reaziñoko arioplanuen bezelakoa zan,
gutsi gora-bera. Zein da, Julio Verne'ren
asmakizunetarikoa bat moduan artu biar izan

eben orduan trena; ta ordu baten barruan
Durango'tik Eibar'era joan leikiala esaten
dau. Jakingo baleu, oin, denpora berdiñian,
Bilbo'tik Madrillera joan leikiala zer esan-
go ete eban.

Baña, ara nola diran bere bertsoak. Ez
pentsau gero onek diranik onenak, bere
onen artian emen ipintzera goiazenak ain-
tzakotzat pe ez ditue artzen. Baña, guretzat,
eibartar moduan, jakingarriak dira; gure
aurrerapenen istoria zati bat dago bertan.
Ze iñork ezingo dau ukatu Eibar'tik pa-
satzen dan tren oni zor detsagula asko ta
asko. «Eibar'ko burdin-bidearen estreñako
kantua» dau izen-buruz.

Ixi, ixi, ixildu,
Txori berritsuak;
Ixildu, errekatzo
Zentzun barikuak;
Ixildu, o abere
Basuetakuak!
Gaozelako emen
Gu ere mutuak,
Gazte, zar, aberats da
Pobre gizajuak,
Entzun daiguzan ondo
Tren-txistu soñuak.

O! egun, baña egun
Goguangarria,
Sekula ez da ilgo
Zure gomutia!
Kondairean izango
Zara ipiñia,
Bedeinkatu dagigun
Jaungoiko aundia;
Or, or datorrelako
Tren txistularia,
Iragorik aspitik
Eitzako mendia.
Ongi, ongi etorri,
Ongi, tren doutsua;
Aspaldian genduan
Zure desua;
Zu errezibitzeko
Jantzi da Zerua,
Eguzkia jagi da
Gaur argiagua,
Illargiak estreñau
Ei dau soñekua,
Izarrez iñoiz baño
Apainduagua.

Zure lurrin ta keia
Jaku pozgarria,
lur leorrari legez
Trumoi ta euzia,
Geyenez oi dalako
Au izan ogia;
Zu ere zara gure
Mesedegarria;
Zuk, zuk biztuko dozu
Gure industria,
Bizi, dediñ ;bail! bizi
Eibar'ko erria!

Nundiketa nora Felipe Arrese-Beitia'k
Eibar'en dako maitasun ori? Zergaitik opa
eban gure erriaren bizitza ta aurrerapena?
Izan be, Eibar'en bizi izan diran otxandi-
xoar guztiak eldu dira gure erria maita-
tzera ta goratzera, eta onekin gogoratzen
naiz, beste otxandixotar askoren artian,
gaur Renterian taberniakini bizi dan bate-
kin, arendako munduan ez dago Eibar'en
modukorik, eta erri aretan Eibar goratza-
llerik bada a dogu aurrenengua. Nik usten
dot, otxandixorak Eibar'en, pikuak eldu-
ta billau dituela; bestela zergaitik guretzat
ainbeste maitasun?

Baña, Arrese-Beitia'k, mundu gustiari
zoriona opa detsa, eta beste bertso orren
jarraitetan ara zer diñuan:

Jaungoikoak egiñik
Gizonari argi,
Onek atara ditu
Zenbait gauza barri;
Oraindio badauka
Zer asmau ugari,
Gura gendukelako
Aidian ibilli.

Etorriko balira
Asabak mundura,
Ez leukie ezagutuko
Jaio ziran lurra:
Añ da aundia eze
Ein daben biarra,
Len bide luze zana
Gaur dogu laburra!

Leguak ta leguak
lagarik atzian,
Egastiak duiñ bizkor
Gaur guaz trenian;
Mundua jiraturik
Lau illabetian,
Barriro sartzen gara
Urten-dako etxian.

Bergara, Plazentzia,
Eibar da Durango,
Egri bat legez dira
Aurrera izango;
Lauretan egon leike
Ordu batgarrengo.
Mundu guztitik tren au
Ojala balego!

Ez dirala ez geizki esanak erbesteko batek
esateko. Baña orrela zan olerkariaren biotza,
beregana badaukagu ikasbiderik naikoa eta
jarraituko ete diogu bere esaneri, berea
dan bertso au geuretzat arturik:

«Ztu daiguzan geure artean
Izan diran aserreak,
Izan gaitean anayak eta
Euskaldun zintzo garbiak».

JUAN SAN MARTIN

Eibar'ko aurrerapeneri begira